

MERLIN

Europako ur gezak biziberrituz.

Europako ingurumena egoera kezkarri batean dago. Habitaten suntsipenak eta biodibertsitatearen galerak era larrian mehatxatzen dituzte gizartearen ongizatea zein oparotasun ekonomikoa, eta espero da klima-aldaketak egoera are gehiago larritzea. Premiazkoa da ekosistema osasuntsu eta erresilienteak errestauratzea kontinentean zehar.



Finantzazioa:
Europar Batasuna

Ur gezen errestraurazio arrakastatsurako moldeak sortuz

Ekosistemen errestraurazioa –batzuetan “naturalizazio” deitua– gori dagoen gai bat da mundu osoan. Baina premia larria dago praktika egokien gidaritzarako, ibaiak, aintzirak eta hezeguneak errestrauratzerakoan. European zehar 17 errestraurazio-proiektu eredugarrirekin lan eginez, MERLINek ur gezen errestraurazio arrakastatsurako moldeak sortuko ditu. MERLIN 10 milioi eurotik gora inbertitzen ari da proiektu horietan, beren arrakastan eragiten duten faktore sozial, ekonomiko eta ingurumenezkoak esploratzeko.

Erakutsiz ur gezen errestraurazioak nolako onurak dakartzan paisaietan zehar

MERLINek erreparatzen dio “naturan oinarritutako konponbideek” ur gezen errestrauraziorako duten gaitasunari. Ikuspegi batzuk dira, prozesu naturalak erabili nahi dituztenak erronka sozio-ingurumenezkoei heltzeko, hala nola klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera, eta uholdeak. Naturan oinarritutako konponbideek –hala nola ibaien ibilgu naturalak errestrauratzea, uholde-lautadak berriro urperatzea, eta presak eraistea– guztion bizimodua hobetzeko ahalmen handia dute, Europar Batasuneko ingurumen-legedi gakoa indartuz, Hitzarmen Berdea, esaterako.

Ur gezak errestrauratzearen alde argudio ekonomikoak erabiliz

Ur gezen errestraurazioak aukera ekonomiko garrantzitsuak sustatzeko ahalmena du: negozio berdeei eta nekazaritza jasangarriari laguntzea, eta aisialdirako aukerak zabaltzea. MERLINek ingurumen balio-kateak erakusten ditu, bai eta, Europako eskualde jakin batzuetarako, naturan oinarritutako konponbideek dituzten kostu eta onurak ere. Areago, MERLINek errestraurazioan inbertsio pribatuak egiteko ereduak erakusten ditu, finantziario publikoaz gain, testuinguru espezifikotara egokituak sektore ekonomikoetarako eta errialdeetarako.



Ingurumenari ongi badoakio, guztioi ongi doakigu.

MERLIN

Ekosistemen errestraurazioa gakoa da prozesu horretan. Ur gezek ezinbesteko papera jokatzan dute ekosistema osasuntsuak errestrauratzean gure eguneroko bizimoduaren bihotzean. Europako erreken, ibaien, zohikaztegien zein hezeguneen errestraurazioak tradizio luzea eta ezagutza-oinarri zabala ditu. Ur gezak –ibai urbanoetatik mendiko aintzira urrunetara– ezinbesteko aldaketaren erakusle garrantzitsuak dira.

MERLIN proiektuak ur gezen errestraurazio eraldatzailea bultzatzen du, naturan oinarritutako konponbideak txertatuz, horrela Europako gizarte eta ekonomia berdeagoak eta jasangarriagoak sustatzeko.

Ur gezen errestraurazioa eguneroko bizian txertatuz

Naturalki isurtzen diren ibaiak, aintzira osasuntsuak, hezegune oparoak eta ukitu gabeko zohikaztegiak, guztiak dira gizarte berdeago eta jasangarriago baten ikur. MERLIN elkarlanean aritzen da tokiko komunitateekin eta sektore ekonomiko gakoekin, hala nola nekazaritza, ur-hornidura, nabigazioa eta aseguruak, ur gezen errestraurazioa gidatzeko European zehar. Prozesu horrek gertutik laguntzen du tokiko konpentsazioak negoziatzen ur gezen errestraurazioa inplementatzerakoan, eta,aldi berean, erakusten ditu errestraurazioaren askotariko onura sozial, ekonomiko zein ingurumenezkoak.

Ur gezen errestraurazioaren txapeldunei lagunduz: orain eta etorkizunean

MERLIN online tresnak sortzen ari da ingurumenaren kudeatzaile, zientzialari, araugile, inbertsore zein ekintzaileentzat, ur gezen errestraurazio proiektuak gauzatzen laguntzeko. MERLIN Merkatuak kontaktuan jartzan ditu errestraurazioan ari direnak; errestraurazioarekin lotutako zerbitzuak eskaintzen ditu; baita eta errestrauraziorako finantziario artekariak ere. MERLIN akademiak formazioa, tailerrak eta punta-puntako zientzia eskaintzen ditu, Europako ur gezak biziberritzeko aldarria zabal dadin.

Ur gezetako praktiken komunitate europar bat sustatuz

MERLIN “ikerketa eta berrikuntza ekimen” bat da, Europar Batzordearen H2020 programak finantzatua. Proiektua Europako 45 partaideren arteko elkarlana da, besteak beste: unibertsitateak, ikerketa-zentroak, naturaren kontserbaziorako erakundeak, eta enpresetako interes-taldeak, gobernuak zein udalerrriak.

MERLIN Alemaniako Duisburg-Essen Unibertsitateak koordinatzen du.

17 errestituzio-proiektu eredugarri Europar barrena

- Zohikaztegi eta hezeguneak
- Erreka txiki eta arroak
- Mugaz gaindiko ibai handiak

MERLIN

www.project-merlin.eu

 [euMERLINproject](https://twitter.com/euMERLINproject)

 [merlin-eu](https://www.linkedin.com/company/merlin-eu)

 [freshwaterblog.net](https://www.facebook.com/freshwaterblog.net)



MERLIN proiektuak Europar Batasuneko finantziakoa lortu du, Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren barnean, 101036337 zenbakiko dirulaguntza-akordioaren bitartez.

MERLINeko partaideaik: University of Duisburg-Essen, UDE, DE; Aqua Publica Europea, APE, BE; Aarhus University, AU, DK; Bundesanstalt für Gewässerkunde, BfG, DE; University of Natural Resources and Life Sciences, Vienna, BOKU, AT; Município de Ponte de Lima, CMPL, PT; Connectology Unipessoal Limitada, CONN, PT; Stichting Deltares, Deltares, NL; Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, DFG, ES; Direção-Geral de Agricultura e Desenvolvimento Rural, DGADR, PT; Ecologic Institut, ECO, DE; Emschergerossenschaft, EGLV, DE; Institutul National De Cercetare-Dezvoltare Pentru Geologie Si Geocologie Marina, GEOECOMAR, RO; I-CATALIST, S.L., ICA, ES; Catalan Institute for Water Research, ICRA, ES; International Peatland Society, IPS, FI; Instituto Superior de Agronomia, ISA-ULisboa, PT; The James Hutton Institute, JHI, GB; Kampinos National Park, KPN, PL; Kishon river and drainage authority, KRDA, IL; Scottish Natural Heritage, NatSc, GB; Naturland - Verband für ökologischen Landbau e.V., NATURLAND, DE; Nature agency, Himmerland, NST, DK; Balaton Limnological Research Institute, BLRI, HU; Oppla, OPPLA, NL; Provinciaal Centrum voor Milieuonderzoek, POV, BE; Rijkswaterstaat, RWS, NL; Schnee auf Moss Werbeagentur GmbH, SAM, AT; Swedish Forest Agency, SFA, SE; Szkoła Główna Gospodarstwa Wiejskiego w Warszawie, SGGW-WULS, PL; Swedish University Of Agricultural Sciences, SLU, SE; Finnish Environment Institute, SYKE, FI; Tapio, Tapio, FI; Tel Aviv University, TAU, IL; Helmholtz - Zentrum für Umweltforschung GmbH, UFZ, DE; Universiteit Gent, UGent, BE; UK Centre for Ecology & Hydrology, UKCEH, GB; Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU, ES; University of Stirling, USTIR, GB; viadonau - Österreichische Wasserstraßen-Gesellschaft mbH, VIAD, AT; Wageningen Universiteit, WU, NL; WWF Adria, WWF Adria, HR; WWF Hungary, WWF HU, HU; WWF Romania, WWF RO, RO | **Kredituak:** Photo 148056877 © Siarhei Dzmitryienka | Dreamstime.com

